



Getxo
**PUNTA
BEGOÑA**
Galeriak



JARDUNALDIA

2017 urriak 10

**BERDINTASUNA
LURRALDEAREN
ANTOLAMENDUAN:
GENEROAK
ZEHARKATUTAKO
PAISAIA**

2017ko ONDAREAREN
EUROPAKO
JARDUNALDIAK
JORNADAS EUROPEAS DEL
PATRIMONIO 2017
BIZKAIA
Urria / 2017 / Octubre

Bizkaia



**PAISAIA
BIZIA**

La construcción
de los paisajes
culturales

JARDUNALDIA

2017 urriak 10

BERDINTASUNA LURRALDEAREN ANTOLAMENDUAN: GENEROAK ZEHARKATUTAKO PAISAIA

Getxo-Bizkaia

Ondarearen Europako Jardunaldien ondorioz eta jardunaldi horiek ardatz zuten gaia baliatuta, paisaia, Kultur Paisaiei eta Ondareari buruzko Unesco Katedratik jardunaldi bat antolatu genuen, eztabaidan generoaren ikuspegia sartzeko. **“Berdintasuna Lurraldearen Antolamenduan: generoak zeharkatutako paisaia”** izan zen jardunaldiaren izenburua, eta Katedra horretan eta Ondare Eraikiari buruzko Ikerketa Taldea (GPAC) egiten ari diren “Ondarea eta generoa: ikusezina dena ikusgarri bihurtzen” lanean txertatuta geratu zen.

Generoa eta lurraldearen antolamendua

Gaia ezin daiteke aproposagoa izan, Hiri Agenda Berria onartu zuen Nazio Batuen 2016ko abenduaren 23ko Batzar Nagusian hartutako konpromisoaren ondoren. Bertan, estatu kideek beharrezko ikusi zuten **hiriaren eta lurraldearen garapeneren aldeko ikuspegi iraunkor eta integratuak** edukitzea, pertsonak ardatz zituztenak, adina eta generoa kontuan zituztenak, politikak maila guztietan aplikatuta, estrategiak maila guztietan formulatuta, gaitasuna maila guztietan sortuta eta neurriak maila guztietan hartuta.

Munduko biztanle gehienak hiriguneetan biltzeko etengabeko joerak begirada guztien erdian kokatu du lurraldearen antolamendua. Horregatik, hiriaren garapenerako estandarrak definitzeko moduak bat etorri behar du hiria pentsatzeko, antolatzeke eta bizitzeko dugun moduarekin.

JARDUNALDIA / JORNADA
2017 urriak 10 / 10 de octubre de 2017

Berdintasuna lurraldearen antolamenduan: generoak zeharkatutako paisaia

Igualdad en la ordenación del territorio: el paisaje atravesado por el género

Getxo - Bizkaia

2017ko Ondoarearen Antolamenduan Jardunaldiak eta JORNADA EDUCATIVA DEL PATRIMONIO DEL PAISAJE BIZKAIA
Ostia 2017 / Octubre

PAISAIA BIZIA
La construcción de los paisajes culturales

Getxo PUNTA BEGOÑA Gaietarik
UP/EHU
UP/EHU
UP/EHU

Gure hirietako iraunkortasunaren, segurtasunaren, efizientzia energetikoaren edo ingurumenarekiko errespetuaren inguruko kezkek ikerketa, azterketa eta eztabaida sutsu askoren xede izaten dira. Horren aurrean, hirigintzan eta lurralde plangintzan aurkitutako konponbideak gutxitan izaten dira inguru horiek ohitura, usadio eta behar aldetik heterogeneoak diren biztanleei erantzuteko duten malgutasunaren emaitza.

Hala, lurralde-eremuak planifikatzeko eta egituratzeko dugun moduak gure gizarteetako desberdintasunak islatzen ditu askotan, eta etorkizunera begirako aldaketak eta estrategiak planteatzeko orduan, askotan ez dira aintzat hartzen gizon-emakumeen arteko dibertsitate eta desberdintasunak.

Eztabaida foroa eta esparru proiektua

Alde horretatik, lurraldearen kudeaketa eta antolamendua genero ikuspegitik lantzeko beharrari buruzko gogoeta egiteko leku bat sustatu nahi izan genuen jardunaldiarekin, ekintza inklusiboak eta berdintzaileak sortzeko modu bakarra dela ulertuta.

Gure gonbidatuen txostenetatik abiatuta, gaiaren inguruko eztabaida sustatu eta gizartearen sentsibilizatu nahi izan genuen, Punta Begoñako



Galeria paregabeak (Getxo, Bizkaia) jardunaldirako leku gisa baliatuta. Euskal Herriko Unibertsitateko Kultur Paisaiei eta Ondareari buruzko Unesco Katedra bertan ari da lanean egun, beste

ikerketa-talde batzuekin batera, galeria horiek leheneratzeko eta balioan jartzeko.

Hala, Punta Begoña proiektuan garatzen ari garen ikerketa aplikatu honen esparruan sartu zen ekitaldia, paisaiaren ikuspegi soziala ikerketaren funtsezko parte duena eta erakunde publikoen, EHUren eta tokiko kolaboratzaileen presentzia artikulatzen duena.



Getxoko Udalak lagatako irudia

Gure lurraldean orekaren era berdintasun sozialaren alde egiten ari diren ekintzak markatzen dituen ikuspegia ezagutzeko aukera ere eduki genuen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko teknikari Victoria

Azpirozen, Getxoko Udaleko Presidentzia eta Berdintasun zinegotzi Keltse Eigurenen eta jardunaldiaren antolatzailea zen Kultur Paisaiei eta Ondareari buruzko Unesco Katedraren zuzendari Agustin Azkarateren eskutik.

Iraunkortasuna eta generoa: ekofeminismoa, posible den beste mundu baterako

Lehenengo txostenak oinarri teorikoak ezartzen dituzten eta garapen berdinzale eta iraunkor batera eramaten duten politiken aplikazioaren aldeko kontzeptuak lantzeko balio izan zuen, esku artean genuen gaien bete-betean sartzeko.

Horretarako, **ANGELICA VELASCO** eduki genuen gurekin, eta ondorengo gogoeta sakonagoak oinarritzeko panorama teoriko oso bat aurkeztu zigun.



Filosofian doktorea eta ingurumen-etikan,

iraunkortasunerako zaintzaren praxian eta ekofeminismoan espezialista da. Gaur egun, Valladolideko Unibertsitateko Etika eta Filosofia Politikako irakaslea eta Genero Ikasketen Katedrako idazkaria da. Genero berdintasunari dagokionez legea errazago betetzearen alde lan egitea du ardatz katedrak. Hainbat proiektutan parte hartu du, ondorengo hauetan, besteak beste: **Genero berdintasuna iraunkortasunaren kultura: garapen solidariorako balioak eta jardunbide egokiak**, Alicia Puleok

zuzenduta, eta **Krisiaren prisma filosofiko-moralak (Pedagogia soziopolitiko berri baterantz)**, Concha Roldanek eta Roberto Aramayok zuzenduta. Eta ekofeminismoari, etikari eta animalien eskubideei buruzko hainbat liburu ere idatzi ditu.

Informazio gehiago hemen:

<http://www5.uva.es/catedraestudiosgenero/>

Hirigintza-politiken sorrerarako ekintza komunitarioari buruzko hausnarketa feministak. Egoera Katalunian eta Euskadin

Bigarren hitzaldiari esker, zuzenean ezagutu genituen bi herrialde horietako esperientziak, gizartearen parte-hartzearen bidez hirien eta lurraldearen diseinuan genero ikuspegia sartzeko orduan.



Horretarako, gaiari buruzko ezagutza handia duten bi txostengilek pare hartu zuten, euren eskualdeetan zuzenean ari baitira gai hori lantzen.

Katalunian egindako lanetan ikasitakora hurbiltzeko, **ADRIANA CICOLETTO** eduki genuen gurekin. Arkitekturan doktorea eta hiri-espazioak genero-ikuspegitik aztertzeko metodologietan eta horiek diseinatzeko irizpideetan

espezialista da, baita **Col.lectiu Punt 6** kolektiboko kidea ere, aspalditik. Kolektibo hori aitzindaria izan da diskriminazioak eta hierarkiak ekintza komunitarioaren bidez genero ikuspegi interseksionala sartuta hausten, eta ibilbide luzea egin du horretan. Arkitekto, soziologo eta hirigileen kooperatiba bat da, eta eguneroko bizitzak dakarren eskarmentutik birpentsatzen ditu espazioak, eraldaketa feminista eragiteko.

Informazio gehiago hemen:

<http://www.punt6.org/>

AMAIA ALBENIZek, berriz, hurbileko, gure lurraldeko esperientzia batzuk erakutsi zizkigun. Arkitektoa, Donostiako Arkitektura GETean ikasia eta

Hirigintzan eta Generoan aditua da. Hiria Kolektiboaren sortzaileetako bat izan zen, hiria eta generoa aztertzen hasi zen lehen euskal kolektiboetako bat, 2002. urtean. Gaur egun, DUNAK TALDEAn jarraitzen du lan horrekin, eta aholkularitza-lanak egiten ditu udalentsat, hirigintza gizarte, genero eta iraunkortasun ikuspegitik lantzeko, eguneroko bizimoduari erantzungo dion eta herritarrei leku demokratikoagoak eraikitzen lagunduko dien hirigintzaren bila.

Informazio gehiago hemen:

twitter: @DUNAKtaldea eta facebook: DUNAKtaldea

Generoa eta Habitata Nazio Batuek Garapen Iraunkorrerako baliatzen dituzten politiken eraikuntzan

Landutako ideiak eztabaidatzeko eta komentatzeko aukera eskaini zigun atsedeen baten ondoren, generoak NBEaren politiketan duen eraginean murgildu ginen; zehazki, habitatarekin eta garapen iraunkorrarekin zerikusia dutenetan, arestian aipatutako Hirigintza Agenda Berria zehaztutako "Garapen Iraunkorrerako Helburuekin" bat etorritz. Nazioarteko ikuspegiari jarri zen fokua, **INES NOVELLA**ren eskutik.



Bera arkitektoa eta berdintasun-eragilea da, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren alorreko berdintasun-politiken Unesco katedrako kidea Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan, eta

ikertzaile eta irakasle lanak egiten ditu Hirigintza Sailean. Zenbait proiektu europarretan eta genero-alorreko aditu-sareekin lan egiten du STEM - Science, Technology, Engineering and Mathematics (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika)- programan, eta bereziki lantzen ditu habitaten diseinua eta plangintza.

Informazio gehiago hemen:

www.triggerproject.eu

<https://www.genderste.eu/>

Proiektu-pentsamolde kritikoa: espazioa, gorputza, generoa eta diseinua

Azkenik, nazioarteko oso esperientzia interesgarri batera hurbiltzeko aukera eduki genuen.

Buenos Aireseko Unibertsitateko Arkitektura, Diseinu eta Hirigintza Fakultateko "Diseinua eta genero ikerketak" gaiaren sorreraren esparruan, galdera hau egiten zioten sustatzaileek euren buruari: *Nola prestatu genero ikuspegia edukiko duten proiektu-arloko ikasleak?* Proiektua genero harremani eta harreman soziosexualen inguruko zentzuak eta araudiak eraikitzeko, erreproduzitzeko eta artikulatzeko gune gisa pentsatuta aurkitu zuten erantzuna. Zeintzuk dira errepresentazio batzuk gai eta beste batzuk pentsaezin egiten dituzten aukera-baldintzak? Gorputzen espazioko antolamendua interpelatzeak identitateak politikaren eremura itzultzeko modua ematen du.



Fakultatean, Buenos Aireseko Hiri Autonomoko Genero eta Justizia Behatokiko trebatzaileaz gainera.

Informazio gehiago hemen:
<https://dyegblog.wordpress.com/>

Punta Begoña eta amaiera

Jardunaldiaren amaiera Punta Begoñako Galerietan izan zen, eta EHUKo Ondare Eraikiari buruzko



Ikerketa Taldeko Saroe Pascual eta Oscar Fernandez ikertzaileek, ondare hori balioan jartzen parte hartzen dutenek, proiektu interesgarri horren zirrikituetan zehar gidatu zituzten bertara joandakoak.



Egilea: Mitxi, EHU



Egilea: Mitxi, EHU

Gurekin izan zineten guztiei, mila esker hor egoteagatik.

Kultur Paisaiak eta Ondarea Unesco Katedra
<http://www.catedraunesco.eu/>



UPV/EHUko BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN PARA LA IGUALDAD DE LA UPV/EHU



Getxo **PUNTA BEGOÑA** Galeriak
Muelle de Ereaga, s/n
48992 | Getxo | Bizkaia



T + 34 944 91 08 00



info@puntabegonagetxo.eus
www.puntabegonagetxo.eus